

ELEBIDE ETA BEHATOKIA
EUSKALDUNON HIZKUNTZA-ESKUBIDEEN DEFENTSARAKO ERAKUNDEAK
IRAKASGAIA: EUSKARAREN ARAUAK ETA ERABILERAK ARLO JURIDIKOAN

Uxue MARTIN SILVA

AURKIBIDEA: I. Sarrera. 1. Hizkuntza-eskubideen definizioa. 2. ELEBIDE eta BEHATOKIA **II. 2015eko Memoria Txostenak:** 1. Memoria Txostenak: funtzioak. 2. Hizkuntza-eskubideen urraketak 3. Hizkuntza-eskubideen urraketak segurtasun, justizia eta administrazio arloetan. 4. Kexen kudeaketa. **III. Proposamenak eta etorkizunerako erronkak:** 1. Kexak konpontzeko proposamen orokorrak 2. Kexak konpontzeko proposamenak segurtasun, justizia eta administrazio arloetan. **IV. Ondorioak. V. Erreferentziak**

I. Sarrera

1. Hizkuntza-eskubideen definizioa eta legedia

Hizkuntza-eskubideak norbere hizkuntzan adierazi eta komunikatzeko eskubidea garatzeko bidea dira. Beste hainbat eskubide garatzeko ezinbestekoak dira: pentsamendu zein adierazpen askatasuna eta informazioa jasotzeko eskubidea. Ez hori bakarrik, hizkuntza nortasunaren garapen askearen adierazpena izan daitezke, herri baten nortasunaren elementu nagusienetarikoa delako. Modu honetan, ondorioztatu daiteke hizkuntza ofizial anitzeko herrialdeetan bizikidetzaz erraztu dezakeela hizkuntza-eskubideak errespetatzea.

Hizkuntza-eskubide hauek lege testu desberdinetan jasota daude. Lehenik eta behin, nazioarte mailan Eskualdeetako edo Ereku Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna dago: <http://www.boe.es/boe/dias/2001/09/15/pdfs/A34733-34749.pdf>.

Espania mailan Espainiar Konstituzioko 3. artikulua dugu, non onartzen den Autonomia Erkidegoen -Euskal Autonomia Erkidegoa gure kasuan- hizkuntzak ere ofiziala izatea. Hau BOEn irakur daiteke: <https://www.boe.es/legislacion/documentos/ConstitucionEUSKERA.pdf>

Euskal Autonomia Erkidegoan 1979ko Autonomia Estatutua dugu, zeinak 6. artikuluan hizkuntza-eskubideak arautzen dituen, euskararen ofizialtasunaz gain. Hau hurrengo web-orrian kontsultatu daiteke: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/1980/01/s80_0032.pdf.

Nafarroako Foru Erkidegoan, hizkuntza-eskubideei dagokienez, oinarritzko araua 13/1982 Lege Organikoa da; izan ere, hemen zehazten da euskara ofiziala izango dela Nafarroako gune euskaldunetan. Legea web-orri honetan dago eskuragarri:

http://www.parlamentodenavarra.es/UserFiles/files/publicaciones/Textos_Legales/Amejoramiento_euskera.pdf

Zoritxarrez, hainbat txosten eta ikerketek erakusten dutenez, Euskal Herrian euskararen normalizazioaren alde lan handia egin den arren, prozesu hau oztopatzen duten urraketak usuak dira. Hizkuntza babesten duten legeen urraketak detektatzea zaila da, herritarrek salatzen ez badituzte. Arazo honen aurrean, Elebide eta Behatokia sortu dira euskaldunon hizkuntza-eskubideak bermatzeko asmoarekin.

2. ELEBIDE eta BEHATOKIA

Elebideren web-atarian zein bere 2015eko memoria-txostenean irakur daitekeenez, Elebide Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2006an martxan jarri zuen zerbitzua da. Honen helburua da EAEko bi hizkuntza ofizialen arteko oreka lortzea; benetako elebitasuna, alegia. Hau lortzeko, hiritarren keak, zalantzak eta galderak jasotzen ditu eta salatuak izan diren entitateei laguntza eskaintzen die, hizkuntzak behar bezala erabil eta zaindu ditzaten. Elebideren funtzioak, helburuak, jarduera-txostenak, araudia eta keak, kontsultak eta iradokizunak burutzeko prozedura, beste batzuen artean, kontsultatu nahi izanez gero, Elebideren web-ataria kontsultatu daiteke: <http://www.euskara.euskadi.eus/r59-eleb/eu/>

Behatokiaren web-atarian agertzen den moduan, zerbitzu hau 2001ean aurkeztu zen jendaurrean. Zerbitzu honek euskaldunen hizkuntza-eskubideak ikuskatzen ditu eta arlo publiko zein sozioekonomikoan babesten ditu. Horrela, hizkuntza-eskubideak urratzen direnean, herritarrei laguntza eskaintzen die eta urraketen ondorio negatiboak gainditzeko neurri eraginkorrak proposatzen ditu. Behatokiaren araudia, jarduerak, helburua, funtzioak eta urteko txostenak, hara iristen diren keak, beste hainbaten artean, kontsultatu nahi izanez gero, jo bere web-orrira: <http://www.behatokia.org/EU/>.

II. ELEBIDEren eta BEHATOKIAREN memoria-txostenak

1. Memoria-txostenak: funtzioak

Hizkuntza-eskubideen babesean aritzen diren bi erakunde hauek urtero txostenak prestatzen dituzte. Txosten hauek zerbitzu bakoitzaren web-orrian argitaratzen dira: http://www.behatokia.org/EU/urteko_txostenak eta <http://www.euskara.euskadi.eus/r59-eleb/eu/>. Hauetan urtean zehar jasotako intzidentziei buruzko informazioa aurkezten dute: kopurua, tipologia, urraketa gertatu den arloa, konponbidea, etab.


Elebideren lehen jarduera-txostena 2007koa da, eta orain arte 9 txosten argitaratu ditu. Behatokiak aldiz, 5 urte geroago argitaratu zuen bere lehen txostena, 2012an, alegia, eta orain arte 4 txosten argitaratu ditu. Behatokiaren eta Elebideren 2015eko memoria-txostenak argitaratu diren azkenak direnez, nire lana bi memoria-txosten hauek aztertzean oinarrituko da.

2. Hizkuntza-eskubideen urraketak. Elebide

Elebideko 2015eko jarduera txostenak aditzera ematen du urte horretako intzidentzia kopurua, 789 intzidentzia, ia bikoiztu egin dela.

2015 urtean izapidetutako intzidentzien tipologia nagusiak hurrengoak izan ziren (ikus Elebideren 2015eko memoria-txostenaren 15. orrialdea):


4. grafikoa: izapidetutako intzidentzien tipologia



Kexak tarteratzen dira herritarrek uste dutenean haien hizkuntza-eskubideak urratuak izan direla. Hauetatik, % 89a esparru publikoaren kontra tarteratu dira, eta % 11 esparru pribatuari dagozkio. Aurreko urtearen aldean, esparru pribatuko kexa kopurua jaitsi egin den bitartean, esparru publikoak gora egin du nabarmen.

Grafikoan ikus daitekeenez, sektore publikoaren aurka jasotako kexa gehienak EAEko Administrazio Orokorrari zuzendu zaizkio (ikus Elebideren 2015eko Memoria-Txostenaren 19. orrialdea).. Gainerako esparruetan burututako urraketek buruzko informazioa nahi izanez gero Elebideren memoria-txostenera jotzea gomendatzen dut: http://www.ogasun.ejgv.euskadi.eus/r51-catpub/es/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HNoPortal=true&N_REVI=003495&N_FASC=0008&C_IDIOM=eu&FORMATO=.pdf

8. grafikoa: kexak esparru publikoan




EAE-ko sektore publikoaren aurka jaso diren kexa guztietatik 41 Eusko Jaurlaritzaren aurka izan dira; gainerakoak 272 Eusko Jaurlaritzaren erakunde eta sozietate publikoen kontra. Kexa gehien jaso dituzten sailak hurrengoak dira: Segurtasun Sailak 14;

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak 11; eta Herri Administrazio eta Justizia Sailak 6.

Esparru pribatuari dagokionez, 2015. urtean 50 kexa esparru pribatuari dagozkio. Urraketak arlo anitzetan eman dira (ikusi Elebideren 2015eko memoria-txostenaren 25. orrialdea):

9. grafikoa: kexak esparru pribatuan



Kontuan hartuta arlo publikoan eman diren urraketa eta kexa kopurua, komenigarria da hau sakonki aztertzea. Arlo publikoa eremu zabala denez, segurtasunaren, justiziaren eta administrazioaren kontra gertatutako urraketa esanguratsuen berri emango dut hurrengo atalean. Honetarako, Behatokiaren jarduera-txosteneko informazioa hartuko dut oinarri gisa: http://www.behatokia.org/EU/urteko_txostenak

3. Hizkuntza-eskubideen urraketak segurtasunaren, justiziaren eta administrazioaren arloetan.

Aurreko atalean esandako legez, atal honetan segurtasunaren, justiziaren eta administrazioaren kontra eman diren urraketa eta kexak sakonki aztertuko ditut. Azalpena Behatokitik ateratako adibide errealekin hornituko dut. Modu honetan, posible izango da zehaztea zer egon daitekeen arlo publikoaren aurkako kexen kopuru esanguratsu honen atzean.

3.1 Hizkuntza-eskubideen urraketak segurtasunaren arloan

Atal honetan segurtasunaren eremuan hizkuntza-eskubideekin lotutako urraketak aztertuko ditut (ikusit Behatokiaren 2015eko jarduera-txostenaren 42-51 orrialdeak). Azalpenekin hasi aurretik, komeni da kasu erreal bat aipatzea:



“Ertzaintzaren kotxe batek 2 lagun gelditu zituen gerrikorik gabe gidatzeagatik. Lagunek, ertzainei euskaraz egiteko eskatu zieten. Hauen erantzuna izan zen ez zeudela euskaraz egitera behartuta eta, gainera, ez ziotela euskaraz egingo “porque no me da la gana”. Isuna erdara hutsean idatzita zegoenez, lagunak Oiartzunera joan ziren. 3

orduren buruan lortu zuten isuna euskaraz’ (ikusi Behatokiaren 2015eko jardueratxostenaren 45-46. orrialdeak).

2015 urtean errepikatu egin dira aurreko urteetan salatu egin diren gertaerak: salaketak, oharrak eta sare sozialeko txioak gaztelaniaz, zuzeneko arreta euskaraz jasotzeko aukera eza, gutxiespenak, mehatxuak...

Giza baliabideak ez ezik, bitarteko materialetan ere gabeziak daude. Errepide-kontrolak zein arriskuak iragartzeko panelak soilik erdaraz daude, baita inprimakiak eta jakinarazpenak ere. Programa informatikoak, ordea, garatu gabe daude.

Legeak aitortzen du ahozko komunikazioetan euskara edo gaztelania erabiliko dela herritarrek lehenetsitako hizkuntzaren arabera. Bestalde, herritar batek euskalduna ez den langile bati euskaraz hitz eginez gero, langileak errespetu osoz ahalbidetu beharko dio lankide euskaldun baten laguntza. Adibidean, ordea, aurrekoa errespetatzeko ahaleginik antzematen.

Behatokiaren memoria-txostenak argi uzten duen moduan, segurtasuneko kidegoen jardueran gaztelania eta frantsesa dira lehentasunezko hizkuntzak eta berme juridiko osoa eskaintzen duten bakarrak. Herritarrei ez zaie bermatzen zerbitzua euskaraz jasotzeko eskubidea, hala agenteek euskara ez dakitelako, nola bitarteko egokiak ez dituztelako.

3.2 Hizkuntza-eskubideen urraketak justizian

Justizia alorrean bereziki larriak dira urraketak hauek (ikusi Behatokiaren 2015eko jardueratxostenaren 52-56. orrialdeak). Epaitegietan itzultzaileak erabiltzean informazioa galtzeko arriskua dago, defentsa eskubidea kaltetu dezakeena.



Behatokiaren informazioan oinarrituz, arlo honetan ere euskararen erabilerak bigarren mailako izaera du: zitazioak eta ziurtagiriak erdaraz, langileak, epaileak, fiskalak, etab. euskaraz ez jakitea... Ahozko jardunean zein jardun idatzian ere hizkuntza nagusia –edo bakarra- erdara da. Bestalde, euskara hutsean aurkeztutako agiriak atzera botatzen dira edo haien

itzulpena eskatzen da.

Jarduerak euskaraz burutu nahi izatea oztopoz beteriko bidea da. Herritarren eskaeraren ondoren Justizia Administrazioak euskara erabiliko du, baina, bestela, gaztelania erabiltzen da hasieratik amaierara.

3.3 Hizkuntza-eskubideen urraketak administrazioan

Azkenik, administrazioaren esparruan hain usuak diren hizkuntza-eskubideei buruzko urraketari buruz gauza pare batzuk komentatzea ezinbestekoa da (ikusi Behatokiaren 2015eko jardueratxostenaren 68-83. orrialdeak). Honi ekin aurretik Behatokira iritsi zen kasu erreal bat aipatuko dut:

“Aita batek bere alabaren NAN egiterakoan, bulegoko langileak esan zion legezko baldintzak betetzen dituen eta euskaraz dagoen jaiotza-agiriak ez duela balio, ez dagoelako elebitan. Haatik, euskarazko agiriak balio osokoak dira EAEko hizkuntza ofiziala den heinean”. (ikusi Behatokiaren 2015eko jarduera-txostenaren 69-70. orrialdeak).

EAEko eta Nafarroako Autonomia Estatutuetan euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak direla xedatu arren, argi dago gaztelaniak balio osoa duela administrazio publikoan jardunean. Ipar Euskal Herrian euskarak ofizialtasuna aitortuta ez izateak administrazioan euskaraz aritzeko aukera urriagoak izatea ahalbidetzen du.


Behatokiak azpimarratutako moduan, oraindik izapideak euskaraz ezin burutu gabiltza, ez aurrez aurreko ez telefono bidezko arretan, jakinarazpenak eta agiri ofizialak gaztelania hutsean jaso, baliabide informatikoak euskaraz aritzeko prestatu gabe, euskaraz zabar eta trakets idatzitako testuekin ...

Behatokiko 2015eko jarduera txostenean salatzen den bezala, langile publikoekin euskaraz jardun nahi duten herritarrek ohitu egin behar dira erantzun zakarrak jasotzera: “en castellano!”, “mal empezamos si me hablas en euskara”, eta gisako erantzunak, soilik langileen %36,4k baitu egiaztatuta hizkuntza-eskakizuna. Honetaz gain, Behatokiko memoria-txosteneko ondorioetan azpimarratzen den moduan, hiritarrek langile euskaldunak noiz libratuko zain egon behar izaten dute, izapideak nola atzeratzen diren ikusiz.

4. Kexen kudeaketa


Elebidek izapidetutako intzidentzia gehienak itxita zeuden 2016. urteko lehen hiruhilabetekoan. Gainerakoei soluzioa eman zaie 2016an zehar. Beraz, baieztatu daiteke, urte amaieran 10 intzidentziatik 9 ebatzita eta itxita zeudela (ikusi Elebideren 2015eko memoria-txostenaren 27. orrialdea):

10. grafikoa: intzidentzien egoera



Urte bukaerarako 389 kexa zeuden itxita, gainerako 81ak izapidetzen ari ziren. Hauen barnean, 3 egoera eman daitezke: irtenbide egokia izatea; irtenbiderik ez izatea; eta, egungo legedia dela bide, urraketarik ez dagoela ulertzea (ikusi Elebideren 2015eko memoria-txostenaren 29. orrialdea):

12. grafikoa: kexen emaitza



III. Proposamenak eta etorkizunerako erronkak

1. Kexak konpontzeko proposamen orokorrak


Erakunde publikoen aurka Elebiden tarteratutako kexa bat da aurrez -aurreko eta telefono bidezko arreta euskaraz ez ematea. Urraketak berriro gerta ez daitezzen hizkuntza- eskubideak bermatzeko protokoloak gogorarazi dira.

Ertzaintzaren kasuan, aldiz, Euskara Plana martxan jarri berri dute. Honek kontroletan zein polizia-etxeetan gutxienez euskaldun bat jartzeko konpromisoa dakar.

Beste zenbait herritarrek salatu dute seinaleak eta iragarkiak erdaraz soilik daudela edota euskarazko testuak okerrak direla. Kasu guztietan zuzendu dira.

Erakunde pribatuen kasuan kexa nagusiak hurrengo esparruetan agertu dira (ikusi Elebideren 2015eko memoria-txostenaren 25. orrialdea):

9. grafikoa: kexak esparru pribatuan



Esparru honetan, herritarrek kexatu dira supermerkatuetako langileak euskaraz ez jakiteagatik. Araudiari erreparatuz gero, langileak ez daude euskaraz jakitera behartuta, baina supermerkatuak prest egon beharko dira kontsumitzaile euskaldunak artatzeko.

Ostalaritzan, aldiz, herritarrek tratatu desegokia salatu dute (mespretxuak, irainak...). Elebide adierazi die, euskaraz jardutera behartuta egon ez arren, hizkuntza ofiziala dela eta euskara erabiltzeagatik ezin dela tratatu ezegokirik eman.

Beste konponbideei buruzko informazioa lortu nahi izanez gero, Elebideren web-orria bisitatu daiteke: http://www.ogasun.ejgv.euskadi.eus/r51-catpub/es/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HNoPortal=true&N_REVI=003495&N_FASC=0008&C_IDIOM=eu&FORMATO=.pdf

2. Kexak konpontzeko proposamenak segurtasun, justizia eta administrazio arloetan

2.1 Kexak konpontzeko proposamenak segurtasun arloan

Behatokiaren ustez, susmo, gaizki-ulertu, eta berandutze hauek agenteek euskaraz balekitez konponduko ziren, soilik kasu horretan gai izango liratekeelako hiritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko.

Horretarako, hizkuntza-politika proaktiboak behar dira. Alde batetik, lanpostua eskuratzeko baldintzetan euskara jakiteari ezinbesteko baldintza bihurtu beharko zen. Bestetik, agenteak euskalduntzeko planak martxan jarri behar dira. Ez hori bakarrik, agente erdaldunei zuzendutako praktika egokien gida bat sortzea proposatzen du Behatokiak, hizkuntzari lotutako tratu desegokiekin bukatzeko.

Hau lortu arte ezin dugu poliziekin segurtasun osoz euskaraz jardun, desobedientzia delitu bat leporatzeko arriskua dela medio.

2.2. Kexak konpontzeko proposamenak justizian

Behatokiaren txostenetik ondorioztatzen da Justizia Administrazioan ez dela bermatzen euskara berdintasunez erabiltzeko eskubidea. Azken urteotan egoera aldatzeko hainbat ekimen plazaratu badira ere (hala nola, Auzia Euskaraz), epaitegietan ez da euskaraz funtzionatzen. Epaia da garrantzikoena eta kexa bat jartzeak eragina izan dezake epailearen iritzian.

Behatokiak eskatzen du pertsonala kontratatzerakoan, euskara baldintza izatea. Bestela, nekez eskaini ahalko da euskarazko zerbitzua euskaldunak ez diren langileen bidez.

2.3. Kexak konpontzeko proposamenak administrazioan

2015 urtean egin dituzten lan deialdi publikoetan ez da eskatu euskaraz jakitea, ez nahitaezko baldintza bezala, ez merezimendu gisa ere. Behatokiaren aburuz, kontratazio politika hau guztiz desegokia da, hizkuntza-eskubideen ikuspuntutik zein diru-publikoen kudeaketari dagokionez.

Testuinguru honetan, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA) antolatu da. Proiektu honen gorabeherei buruzko informazio osagarria nahi izanez gero, Behatokiaren web orria bisitatu daiteke: http://www.behatokia.org/EU/urteko_txostenak

Honen aurrean, Behatokiak egin dezakeen bakarra da agintariei akuilu lana egitea eskatzea, euskararen erabilera normalizatzeko erakunde publikoetan eta herritarren eskubideak zaintzen hizkuntzengatik diskriminatuak izan ez daitezen.

IV. Ondorioak

Lanaren hasieran aipatu da Elebidek 2015ean intzidentzia gehiago jaso dituela. Zorionez, honen atzean mezu positibo bat egon daiteke: herritarren kontzientzia hizkuntza-eskubideen gainean hazten ari da. Bestalde, Elebideren ospea eta harekiko konfiantza handitu da, gehienetan konponbide egokiak ematen dituelako.

Dena dela, hizkuntza-eskubideak politika publikoan bigarren mailakoak izateak urraketak urtetik urte irautea dakar. Haatik agintarien utzikeriak etsipena eragin beharrean, euskaldunak hizkuntza dela eta diskriminatuta sentitzen direnean, ez dira konformatzen, eta zerbitzu hauetara jotzen dute babes bila.

Aurrekoaren arrazoiak bi dira. Hasteko, garai batean onargarriak ziren egoerak salagarriak kontsideratzen ditugu gaur egun. Bukatzeko, bi txostenetan argi ikus daitekeenez, herritarrek badakite kexa jartzeak beti dituela ondorioak: kasu batzuetan, urraketa gainditzeko neurriak hartzea sustatzen da; beste batzuetan, egoera hobetzeko indar egiten da normalizazioaren hutsuneak betetzeko.

Seguruena Elebideren eta Behatokiaren hurrengo txostenetan hainbat gabezia ikusiko dira. Baina, dudarik gabe, euskaraz jarduteko aukera mugatua den testuinguru honetan, herritarren ahaleginari esker egoera askori konponbidea emango zaio. Izan ere, 2015eko txostenetan ikusi da herritarren ahaleginak aldaketa positiboak eragin dituela. Orri hauetako lorpen bakoitza pausu txikiak diren arren, euskaraz bizitzeko xedera hurbiltzen gaitu.

Bibliografia

-Behatokiaren web-orria:

http://www.behatokia.org/EU/urteko_txostenak

-Elebideren web-orria:

http://www.ogasun.ejgv.euskadi.eus/r51-catpub/es/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HNoPortal=true&N_REVI=003495&N_FASC=0008&C_IDIOM=eu&FORMATO=.pdf